

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Doluaren sigi-sigak



Iratxe Retolaza

Juanjo Olasagarraren nobelagintzan ezagun zitzazkigun auziek zeharkatzen dute *Poz aldrebesa*: desira-minak eta sedukzio-jolasak, komunitate politikoen hersturak, sexu-askapenerako zein nazio-askapenerako borroken arteko talkak, biolentzia politikoa... Nolanahi ere, kezka horiek bestelako arkitektura narratibo batean gorpuztu ditu. Urrun du *Ezinezko maletak*-en camp kulturaren kutsua. Urrun du *T (tragediaren poza)*-ren saiakera-kutsua. *Poz aldrebesa*-n izan bada gogoeta-piezarik, izan bada pentsamendu teorikoaren adabakirik, baina, oraingoan orekari eutsi dio, eta pertsonaien nortasun sendo zein gatazkatsuetan datza nobelaren indarra. Joseba Aldaz eta Axi Iminizalduren arteko afektu- eta larru-harremanak ditu ardatz istorioak. Gauetik goizera Josebari Axiren zaintzaile izatea egokitu zaio (Axik memoria galdu ondoren, bihotzeko baten eraginez), eta mugarri horrek bultzatzen du *bikotearen errelatoa* birpentsatzera. Horri tiraka, bi maitaleen norgehiagokak, tirabirak eta konplizitateak aletzen zaizkigu, hogeit urteren epe-aldian. Adinean gora egiteak ere hautaturiko bizitza-ereduaz gogoeta egitera darama Joseba, gizarte-eredu baten egonkortzearekin batera erroterikoa (instituzio autonomikoak, kontsumo-gizartea, familia-egiturak, eta abar). Besteak beste, gay komunitatearen barne-gatazkak dakartza gogora (identitate politikoa, auzia, sexu-rolak, joera misoginoak, fideltasunaren auzia...). Bide horretatik, Josebaren dolu-aroa beste dolu-egoera batzuekin solasean jartzen da:

Poz aldrebesa

JUANJO OLASAGARRE

Susas, 2017



Juanjo Olasagarre Mendinueta idazlea (Arbizu, 1963).



LGTB komunitatearen dolu-errituak eta dolu-oinazeak HIESaren gatazkaren aroan; Euskal Herriko gatazka armatuko biktimen dolu-errituak eta dolu-irakaspenak; eta abar. Josebaren eta Axiren artekoa, bestalde, harreman-sare batean kokatzen zaigu, lagun-minekin, lankideekin zein senideekin hartu-emanean. Afektu-sare horretan ere nortasun indartsuak irudikatzen dira: Txato, Josebaren kontzientziaren harra, eta Etika Marikaren bozeramailea; Lander, Lokarriko kidea, eta nobio-minaren ajeak bizi dituen; Begoña, Kultura Sustatzeko Zuzendaria eta boterearen trikimailuetan trebatua; eta abar. Lagun-talde horretan badira otzantzeak, harrotzeak eta desleialtasunak; baina batez ere pertsonaien hauskortasuna irudikatzen zaigu, nahiz eta zaugarritasun hori estaltzeko ahaleginetan bizi, eta autoengainuan, autogorrotan edota autoerrukian gozo hartu. Atzera-aurrera eta hara-hona garamatza nobelak, garaietan zein lekuetan, baina, pieza guztiak oso ongi josita daude, eta kateatzen zaitu nobelak, pertsonaien konplize isil bihurtzeraino. ■